



ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

## Elur eta izotz aurreikuspenak

Datozen egunetarako izotz iragarpenak direla eta, udalak urtero legez, ondorengo oharra argitaratzen du datozen aste eta hilabeteetan izan daitezkeen elur eta izotzen aurrean.

Elurrak atek ixten dituela jakina da eta guk, gure zerbitzuen arabera, saiakera egingo dugu kale eta baserri bidetako elurrak kentzen.

**Kale-eremuan** Udal langileak saiatuko dira ahal den neurrian, bide eta espaloiak garbi edukitzeaz, betiere eguraldi baldintzen arabera eta gune batzuei (eskola, mediku-etxea...) lehenetsua emanaz.

**Baserri bideei dagokienez**, bideak garbitzeko agindua emango zaio Udalak horretarako hitzartuta duen langileari. Honakoa izango da bideak garbitzeko ordena, orokorrean:

1. Egileor auzoa, Olakosaitik behera
2. Urtsu-Erreka auzoa, Aizporragatik hasita eta Urreta auzoa, Urtsularretik behera
3. Olaeta auzoa: Igartzaeta, Goizane...
4. Aiestaran-Erreka auzoa, Lazkao-Etxetik hasita
5. Miranda eta Okobio
6. Arruegi auzoa, Arrutik behera
7. Urtesabel auzoa, Aldautik hasita
8. Elbarrena auzoa

Bestalde, **gatza utziko da** behar duenak hartzeko Bilore ondoko lokalean. Kontuan izan **gatzak kalte handia sortzen duela zoruan eta beraz, tentuz, neurriz eta arduraz erabili behar dela.**

Neurriak hauek izango dira orokorrean, baina eguraldi baldintzen arabera beharrezko moldaketak egingo dira kasuan kasu. Udalak **pazientzia** eskatzen dizue herritarroi eta, batez ere, **tentuz ibiltzea** autoa hartu aurretik.

**Eguraldi iragarpenak aintzat hartu** eta bezperatik kontutan izan zein puntutatik abiatu behar duzuen hurrengo egunean, **kotxea hartzea ezinbestekoa baduzue hauek bide nagusietatik gertu utziaz.**

Neguan elurra egitea normala eta ongarrri dugu, iragarrita egon edo ez. Gizakiak ez du oraindik natura menpean hartzeko modurik aurkitu, eta eskerrak. **Eguneroko erritmoa jaistera behartzen gaitu elurrak. Aukera ederra beraz, ezinegon eta frustrazio gisa hartu beharrean, alde onetik eta patxadatik hartzeko.**

ZALDIBIAKO UDALA

2019ko urtarrilaren 10ean